

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pilar Bastida Irastorza

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1924)*

Aurkibidea



Biografia



Eibarko Arrate bailarako Sagartegieta ("Sartei") baserrian jaio zen. Aita eibartarra zen eta ama, berriz, Mallabiko Gereia ("Geria") auzokoa. Zortzi urtera arte Eibarren bizi izan zen. Eibarko arma industriaren krisiak langabezia handia ekarri zuen, eta aitak Arrasaten lana aurkitu eta Musakola auzoko Olatxo kale-baserrira (gaur galduta) etorri ziren erreterero. Gerra denboran soldaduak etxean egon ziren, eta amak Pilar Oñatira bidali zuen, Zañartu auzoko eskola kudeatzen zuten mojen etxera. Bi urtez egon zen bertan. Pilarrek hamazazpi urte zituenean, Ferrerías kalera joan zen familia bizitzera. Arrasateko "Monjas de la Asunción" en eskolan ibili zen hamazortzi urte bete zituen arte josten, kontabilitatea eta pintura ikasten. Handik Zerrajera lantegiko bulegora joan zen lanera. Zarugalde kaleko Leandro Azkoagarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba dituzte. Azken umeak hiru urte zituela, "Academia Bastida" ireki zuen, takigrafia eta mekanografia irakasteko. Etxean hasi zen klaseak ematen, baina ikasle kopurua igoaz joan zen, eta 80 idazmakinako eskola izatera iritsi zen. Gero, alaba batek jarraitu zuen Pilarrek hasitako lanarekin.

Zintak

ARR-169

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-23
- **Iraupena:** 27 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

ARR-170

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-23
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Armagintzak behera

- **Erref:** ARR-169/002
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:04:26. **Bukatu:** 00:08:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Lehenengo Mundu Gerra bukatutakoan, armagintzak behera egin zuen Eibarren eta alde egin behar izan zuten Arrasatera lan bila. Eibarren tailer txikietan lan egiten zen.

2. Errepublikaren ospakizuna Maltzagan

- **Erref:** ARR-169/003
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:08:21. **Bukatu:** 00:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

1933an iritsi zen Arrasatera. Gogoan du Errepublika aldarrikatu zenean, Maltzagako (Eibar) eskolara joaten zela eta zelako ospakizuna egin zen. Ziorla auzoko anekdota bat kontatzen du.

3. Olatxo inguruak

- **Erref:** ARR-169/008
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:17:56. **Bukatu:** 00:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Olatxo baserria desagertuta dago baina garai hartan ingurua zelakoa zen deskribatzen du. Etxeko abereak eta ortuko jardunean zela moldatzen ziren kontatzen du. Egurrezko estufak erabiltzen zituzten.

4. Ogia Bonbuluri erosten zioten

- **Erref:** ARR-169/009
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:21:12. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Olatxon ez zuten ogirik egiten eta erosi egiten zioten Bergaratik etortzen zen Bonbuluri.

5. Harri-loradunekin jolasean

- **Erref:** ARR-169/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:25:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Eskolatik irtendakoan, autobusa pasatu arte bide bazterrean egoten ziren. Tortolosean, "diez-veinte"ka eta beste hainbat jolasetan aritzen ziren. "Harri-loradun"ekin jolasean ere ibiltzen ziren; protzelanazko zerbait apurtuz gero, margoa zuten zatitxoak zaku batean gorde eta harekin egiten zuten jokoan, kromoak erosi egin behar izaten ziren eta.

6. Gerra hasi aurretik

- **Erref:** ARR-170/003
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:06:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerra hasi aurretik, milizianoak iritsi ziren Arrasatera eta eskolatik alde egin behar izan zuten. Etxean lo egiten zuten soldaduek. Etxekoek mojetara bidali zuten Oñatira, badaezpada.</p>

7. Uniforme beltzogatik ezizena

- **Erref:** ARR-170/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:10:38. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Oñatiko eskolatik etorrira, hamalau urterekin "Colegio de la Asunción"en hasi zen. Non zegoen azaltzen du. Uniforme beltza zutenez, "las cucarachas" deitzen zieten.

8. Lantegiak bonbardatzen

- **Erref:** ARR-170/008
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra hasi aurretik, milizianoek lantegiak bonbardatu zituzten. Umeak babeslekura joaten ziren.

9. Erreketeen koronela etxez etxe

- **Erref:** ARR-170/010
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:21:14. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian, erreketen koronela etxez etxe ibiltzen zen. Beraien etxean izan zenekoa kontatzen du.

10. Ezkonduta ezin lan egin

- **Erref:** ARR-170/013
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:26:47. **Bukatu:** 00:31:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Bederatzi urtez aritu zen "Unión Cerrajera"n lanean, bulegoan. Gero etxean torlojuak egiten zituen. Umeak hasi eta gero, lan bila hasi eta ezin izan zuen lanik egin ezkonduta zegoenez legeak debekatzen zuelako. Enpresa titulazioa atera zuen bere akademia jartzeko.

11. Senarrarekin etxeko ardurak banatzen

- **Erref:** ARR-170/014

- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:31:27. **Bukatu:** 00:35:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Takigrafia, mekanografia eta kontabilitatea erakusten zituen. Egun osoz aritzen zen lanean. Senarrarekin adostu behar izan zuen umeen zaintza partekatzea eta hainbat etxeko lan.

12. Takigrafia erakusten

- **Erref:** ARR-170/015
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:35:31. **Bukatu:** 00:40:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Akademian lanerako neska bi hartu zituen. Takigrafiari buruzko hainbat azalpen eta anekdota kontatzen ditu.

13. Emakumeen itxura lanerako

- **Erref:** ARR-170/016
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:40:41. **Bukatu:** 00:45:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Takigrafia biltzarretan eta lantegietan erabiltzen zen. Lanpostuetarako emakumeentzat itxura oso kontuan hartzen zen.

14. Arrasateko lehenengo akademia

- **Erref:** ARR-170/017
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:45:10. **Bukatu:** 00:50:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Arrasateko lehenengo akademia jarri zuen 1963an. Artilezko jertseak egiten aritzen zen. Belarri batetik entzuteari utzi zionean, lana laga zuen eta bere alabak jarraitu zuen.

15. Erreberua

- **Erref:** ARR-170/022
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:01:07. **Bukatu:** 01:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Erreberua zela hartzen zuen kontatzen du. Aurretik errapeak ur epelez garbitzen zituen tiok eta lehenengo esnea berak edaten zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com